

## HUHEZIK Joxean Alustiza izendatu du lehendakari, eta berritu egin du Errektore Kontseilua

2007/03/30

HUHEZIK **Joxean Alustiza** izendatu berri du bertako lehendakari **Txema Gisasolaren ordezkari**. Joxean Alustiza **Ezkio-Itsason** jaio zen **1965ean** eta gaur egun Zumarragan bizi da. **Ingeniaritza teknikoa** ikasi zuen **Mondragon Unibertsitatean**. 1991 urteaz geroztik Proiektu Elektronikoen arduraduna da Fagor Arrasaten 1999tik aurrera, berriz, **Fagor Arrasateko** Kontseilu Errektoreko lehendakaria da, Fagorreko Kontseilu Nagusiko kide eta MCCko Batzorde Iraunkorreko kidea.

### Errektore Kontseilua

Lehendakaria izendatzearekin batera, HUHEZIK berritu egin du bertako Errektore Kontseilua. Hauek dira orain kide berriak:

- **Pili Sagasta**: langileen ordezkaria, lan bazkidea
- **Ane Urizar**: langileen ordezkaria, lan bazkidea
- **Jokin Leniz**: IKO-ko 2. mailako ikaslea. Ikasleen ordezkaria, bazkide erabiltzailea
- **Maddi Elorza**: IKO-ko 1. mailako ikaslea. Ikasleen ordezkaria, bazkide erabiltzailea.
- **Amaia Etxeberria**: AH-ko 2. mailako ikaslea. Ikasleen ordezkaria, bazkide erabiltzailea.
- **Joxean Alustiza**: Fagorreko ordezkaria, MCCko Batzorde Iraunkorreko kidea, bazkide laguntzailea.
- **Belen Kortabarria**: MCCko ordezkaria, bazkide laguntzailea.

